

AZTIRIKO XX. MENDI LASTERKETAKO ARAUTEGIA

- **DATA:** 2026ko uztailaren 19a.
- **LEKUA eta ORDUA:** Aztiria Auzoa, Gabiria (Gipuzkoa), goizeko 10:30etan. Irteera eta amaiera puntuak Aztiriko plazan izango dira.
- **IBILBIDEA:** 12 km-ko eta +745 m-ko desnibela duen ibilbide zirkularra izango da, Aztiriko plazan hasi eta Aztiriko plazan bertan amaituko dena. Aizeleku eta Otañu mendietatik igaroko da eta ibilbidearen erdian Aztiriko plazatik ere igaroko da.
- **PARTE-HARTZAILEAK:** Lasterketan gehienez 220 parte-hartzaile izango dira. Lasterketan parte hartu ahal izango dute lasterketa egiten den urtean 16 urte betetzen dituztenek (hau da, 2010ean jaiotakoek). Adingabeek derrigorrez aurkeztu beharko dute gurasoen edo legezko tutorearen baimena, behar bezala beteta eta sinatuta, lasterketaren egunean bertan formatu fisikoan. Baimen-orri hor kronoakeko dokumentazioaren atalean egongo da egongo da eskuragarri eta baita hemen ere: [baimen-orria](#). Parte-hartzaile guztiek araudi hau bete beharko dute.

220 parte-hartzaileen muga gaindituko balitz, itxaron-zerrenda irekiko dugu. Zerrenda horretan izena emateko email bat bidali beharko da aztirikomendilasterketa@gmail.com helbidera. Jasotze data eta orduaren arabera izango da itxaron-zerrendako korrikalarien hurrenkera.

- **PARTE HARTZEARI UKO EGITEA:** Uztailaren 7a (egun hau barne) baino lehen parte hartzeari uko egiten diotenei dirua itzuliko zaie. Egundik aurrera egiten dutenei berriz, ez.
- **KATEGORIAK:**
 - Emakumezko absolutuak
 - Gizonezko absolutuak
- **IZEN EMATEAK:** Kronoak webgunean egingo da. Epea 2026ko apirilaren 25ean hasiko da, eta 2026ko uztailaren 16ra arte (23:59) irekita egongo da.
 - Ekainaren 21etik aurrera izena-ematen dutenentzat **ez da kamiseta ziurtatzen**.
- **PREZIOA:** Parte hartzea 20€ izango da. Prezio honetan anoa-guneak, kamiseta, duxak, zozketak, hamaiketako eta istripu-asegurua (Kronoak plataformaren bidez kudeatua) sartzen dira.
- **MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEARI DOHAINTZA:** Aurten Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteari dohaintza bat egingo diogu. Gure ekarpena korrikalari bakoitzeko 1€

izango da. Diru hori inskripzioetik apartekoa izango da.

- Guztira korrikalari bakoitzak **21€** ordainduko ditu. 20€ inskripzioa + 1€ Minbiziaren Aurkako Elkartearen dohaintza.
- **SEINALEZTAPENA:** Etiketa berdearen komunitatean sartu gara aurtengoan. Ibilbide osoa seinaleztatuta egongo da ikusgarri diren seinale bereziekin.
- **ANOAGUNEAK:** 3 anoa-gune egongo dira lasterketan zehar eta azkena helmugan egongo da. Anoa-gune hauetan parte-hartzaileentzat produktu solido eta likidoak egongo dira.
- **IGAROBIDE DENBORAK:** Helmugara iristeko gehieneko denbora 2 ordukoa da. Hala ere, antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik baztertzeko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:
 - Ezarritako arauak hausten dituztenean.
 - Ezarritako ibilbidea betetzen ez dutenean.
 - Antolatzaileak esandakoari jaramonik egiten ez diotenean.
 - Gainontzeko korrikalarietako kiroltasunez jokatzeko ez dutenean.
 - **Lehen itzulia amaitu ez dutenak ordubeteren barruan.**
- **KONTROLAK:** Proban zehar antolakuntzak 2 kontrol gune jarriko ditu. Bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da eta dortsala agirian eraman beharko da.
- **SARIAK:** Aurtengo sariak ondorengo hauek izango dira:
 - 1.go Emakumezko absolutoarentzat trofeoa + lore sorta
 - 1.go Gizonezko absolutoarentzat trofeoa + lore sorta
 - 2. Emakumezko absolutoarentzat trofeoa
 - 2. Gizonezko absolutoarentzat trofeoa
 - 3. Emakumezko absolutoarentzat trofeoa
 - 3. Gizonezko absolutoarentzat trofeoa
 - **20. urteurreneko saria**
- **20. URTEURRENEKO SARIA:** Aurtengo berrikuntza izango da. Sari berezia izango du helmuga zeharkatzen duen 20. korrikalariak.
- **SAILKAPENAK:** Sailkapena www.kronoak.com webgunean argitaratuko da.
- **DORTSALEN BANAKETA:** Dortsalak Aztiriako plazan banatuko dira lasterketa egunean, uztailak 19, goizeko 9:00etatik 10:00etara. Partaide bakoitzak, bere dortsala eta kamiseta jasotzeko NAN-a erakutsi beharko du.
- **KONTSIGNA ZERBITZUA:** Kontsigna zerbitzua egongo da parte-hartzaileentzat. Korrikalari

bakoitzak dortsal-poltsan etiketa jasoko du eta bere gauzei jarri beharko die. Zerbitzua **Aztiri Bat Elkartean** egongo da, eta bertan utzi eta lasterketa amaitzean jaso ahal izango dira objektuak.

- **DUTXAK:** Auzoko frontoian eta elkartean izango da dutxatzeko aukera.
- **HAMAIKETAKOIA:** Parte-hartzaile guztiek amaieran Aztiri bat elkartean hamaiketakoia izango dute.
- **INGURUMENA:** Lasterketan zehar ingurunea ahalik eta gehien zaintzeko eta zaborrak anoa-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei.
- **OSASUN LAGUNTZA:** Antolakuntzak osasun laguntza zerbitzua jarriko du irteera eta helmugan.
- **SEGURTASUNA:** Segurtasun edo bestelako arrazoietan oinarriturik, antolakuntzak lasterketako ibilbidea aldatu edo desbideratu ahal izango du. Eguraldi arrazoiak medio, lasterketa bertan behera uzteko eskubidea izango du antolakuntzak.
- **ERANTZUNKIZUNA:** Proban izena ematen duten guztiek, borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beraien oinordekoek erantzunkizun zibilaria dagokienez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere, antolakuntzak ez du ardurarik izango. Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzunkizuna.

- **BABES PERTSONALA:** Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua. Izen-ematearekin batera, parte-hartzaile guztiek istripu-asegurua izango dute, Kronoak plataformaren bidez kudeatua.